

5.BEZEROEKIN ERLAZIOAK

Gure enpresarekin kontaktatzea erabakitzean, sare ezberdinen bidez kontaktatu dezakete. Gure ustez bezeroarekin erlazio ona mantentzea ezinbestekoa da, enpresak aurrera egiteko eta batez ere bezeroaren erosotasuna bilatzeko.

Tratua desberdina izango liteke sare bakoitzeko:



Gmail: Gmailen dokumentu adjuntuak bidaltzeko aukera dugunez; gure ofertak, ordutegiak edo gure enpresaren argazkiak bidali ditzazkegu. Zuen kontsulta jasotzean, ahal dugun azkarren erantzuten saiatuko gara.



Telefonoz: Telefonoz informazioa zehatzagoa izango da eta bezeroak dena ulertzea, gure helburua denez, dudak baditu argitzen saiatuko gara eta irudiak bidaliko dizkiogu behar baldin baditu gmailen bitartez. Azalpenak behin baino gehiagotan errepikatzeko prest egongo gara bezeroak dena argi izan dezan.



Sare sozialak (Instagram, Facebook eta Twitter):Bertan jendeak eduki ditzazken galderak idazteko aukera izango dute. Horrez gain, bezeroei jakinaraziko dizkiegu; ad: Ordutegi berria jartzen badugu, prezioetan aldaketak, promozioak etab.. Galderen erantzuna azkarra izatea saiatuko gara.



Aurrez aurre: Tratua desberdina izango da, bezeroa lokalera galdetzera etortzen bada. Bezeroarekin gertukoak izaten saiatuko gara, horrela gustora sentitzea eta konfidantza lortzea errazagoa izango da. Lokalean, zerbitzua ezagutzeko eta benetan nola den ikusteko aukera gehiago izango ditugu. Galderaren bat edukiko balu, lasaitasunez hitz egingo genioke. Ez ulertzearen kasuan berriro errepikatzeko prest egongo gara.